

tasak vs zergak

tasak

Zergatik ordaintzen ditugu?
Zerbitzu batzuk erabiltzeagatik.

Zertarako?
Zerbitzu horiek finantzatzeko.

Nork ordaintzen ditu?
Erabiltzen dituztenek.

zergak

Zergatik ordaintzen ditugu?
Gaitasun ekonomikoa izateagatik.
Estatu demokratikoetan erakunde publikoak finantzatzeko modua da.

Zertarako?
Eragiketa-kostu orokorra finantzatzeko
(gastu publikoa).

Nork ordaintzen ditu?
Pertsona guztiak; gaitasunaren arabera.

Parte-hartze prozesua udal-zerbitzu hauetako tasak optimizatzean oinarritzen da:



hiri-hondakin solidoak

Zer zerbitzu finantzatzen da?

Hiri-hondakin solidoen (HHS) bilketa, tratamendua eta zentral pneumatikoaren elektrizitate-konsumoa.

Zenbat balio du zerbitzu hau mantentzeak?

2.137.455€. Bilketak %60, tratamenduak %36 eta zentral pneumatikoak %4.

* Ez du barne hartzen inbertsioen amortizazio gastuak (lurpeko hodian eta ekipamenduen zentrala biltzeko eta instalatzeko, adibidez, balbulak).

Nork eta nola finantzatzen du?

%46 etxebizitzek, lokal eta higiezinak finantzatzen dute, zabor tasaren bidez. Guztira, 950.000€.

Gainerako % 54a, Udalak finantzatzen du, ondasun arruntak eta zerbitzuen aurrekontu-sailetik, zergadun guztien zergekin. Guztira, 1.099.596€.

Nola finantzatzen dira beste lekuetan?

Sar zaitez www.galdakaohobetuz.com eta ikusiko duzu zelan finantzatzen diren beste lekuetan.



kirol-instalazioak

Zer zerbitzu finantzatzen da?

Kirol-instalazioen operazioa, kudeaketa, mantentze-lanak eta ekipamendu erreserbak eta polikiroldegien kontserbazio eta hobekuntza lanak.

Zenbat balio du zerbitzu hau mantentzeak?

2.228.489€.
* Ez du barne hartzen inbertsioen amortizazio (postontziak edo kiroldegia eta beste kirol instalazio batzuk).

Nork eta nola finantzatzen du?

%27 abonatuak finantzatzen dute, kirol-abonuaren bidez. Guztira, 600.000€.

Gainerako % 73a, Udalak finantzatzen du, ondasun arruntak eta zerbitzuen aurrekontu-sailetik, zergadun guztien zergekin. Guztira, 1.431.689€.

Nola finantzatzen dira beste lekuetan?

Sar zaitez www.galdakaohobetuz.com eta ikusiko duzu zelan finantzatzen diren beste lekuetan.

Orain zure txanda da:

Pozik zaude zerbitzu hauekin? Hobetzeko beharrik ikusten duzu? Eta aukerak?

Tasak igoko zenituzke euren finantzazioa optimizatzeke? Zenbat?

Zelan optimizatuko zenuke zerbitzua kalitatea mantentzeko eta, era berean, gastua jaisteko?

**Zure iritzia funtsezkoa da. Denon artean, Galdakao ondu dezagun.
Zatoz parte hartzera! www.galdakaohobetuz.eus**



Galdakao hobetuz!

Udal-tasak optimizatzeko parte-hartze prozesua

Udalak udal-tasei buruzko eztabaida publikoa zabalduko du

Eztabaida irekia (interesa daukan edozeinek parte har lezake) izango da eta irailean bertan egingo da.

Udalak eztabaida eraikitzaile, egoki eta beharrezko bat zabaldu nahi du herritarren artean udal-politika fiskala optimizatzeko. Batez ere, zabor-bilketako tasak eta kirol abonuak. Eztabaida irekia (interesa daukan edozeinek parte har lezake) izango da eta irailean bertan egingo da.

Ekimen berritzaile da; izan ere, udal askok parte-hartze bidezko aurrekontuak izan arren, Galdakao horien artean, gutxik edota batek ere ez du politika fiskalekin egiten.

Udal kudeaketa ekonomikoa

Udalak zergarik gabeko finantza-egitura dauka udal-aurrekontuekin urtero kudeatu eta planifikatzen duena eta baita 4 urtean behin berraztertzen duen plan estrategikoarekin. Finantza-egitura zergarik gabe mantentzeko, azken finean, diru-sarrerak gastuak baino handiagoak izan behar dira. Ahal izanez gero, %15 aurrezki-marjinarekin inbertsioei edo aurreikusitako gastuei aurre egiteko.

Orokorrean, Udalaren aurrekontuak azken lau urteotan joera iraunkorra mantendu du, 31.000.000€ inguru.

Diru-sarrerak 3 iturritik datoz: transferentzia arruntak¹ (% 57,6),

zergak (% 28,6) eta tasak (% 13,8). Gastuei dagokienez, ondasun arruntak eta zerbitzuak (% 51,7), pertsonaleko gastuak (% 28,3), transferentzia arruntak² (% 10,5), inbertsio errealak (% 9,4) eta aktibo finantzarioak (% 0,3).

Informazio gehiago: Txostena. Aurrekontu ulergarria 2016, zabalzen, galdakao.net.

Udal-tasen ezbaia

Tasak, zergak ez bezala, zerbitzu bat emateagatik ordaintzen dira. Zerbitzu hori erabiltzen duten pertsonak tasa hori ordaintzen dute. Hala ere, udal zerbitzu batzuen mantenua defizitarioa da. Adibidez, zabor-bilketa eta tratamendua, eta udal kirol zerbitzuak. Hau da, erabiltzaileek zerbitzu horren gastuaren zati bat ordaintzen dute eta Udalak gainerakoa ordaindu behar du, zergadun guztien zergekin. Honek Udalaren beste beharrei aurre egiteko gaitasunari eragiten dio.

Beraz, ezbaia hau da: gaur egungo tasak sortzen duten defizitarekin mantendu edota tasak gehitu defizita murriztu eta beste beharrei aurre egiteko baliabide gehiago izan, honek eragingo lukeen haserre orokorra kontuan izanda. Kontuan hartu behar da zerbitzuaren

mantenua soilik erabiltzaileek ordainduz gero, seguruen zerbitzua sano garestituko eta zerbitzua bera eragin barik geratzeko arriskuan egongo litzatekela. Bestalde, tasak igo egingo balira, aplikatzeko modua ez litzateke linealea izango, baizik eta bonus sistema kontuan hartuko litzateke, familia bakoitzaren errenta eta pertsona kopuruaren arabera.

Parte-hartze prozesua

Egoera honetan, Udalak ezbaia herritarrekin partekatze aukeratu du. Hori dela eta, parte-hartze prozesuaren helburua bikoitza da:

- Herritarrei gaur egungo egoeraz INFORMATZEA: zein zerbitzuek defizita sortzen duten eta zelan ordaintzen diren, parte-hartzaileak jakinarean gainean egon daitezten.
- Herritarrekin eta eragileekin ELKARREKIN LAN EGITEA denon artean adostutako irtenbideak lortzeko eta udal-zerbitzuak optimizatzeko, sozialki eta ekonomikoki egin ahal izanez gero.

Zure parte-hartzea funtsezkoa da. Galdakao hobetzen laguniezaguz!

¹ Funtsean, Udalkutxako fondotik dagokiona. Hau da, BFAko udal finantzatzeko fondoa, hainbat zerga hornitzen duena (BEZ, PFEZ, Transmisioaren gaineko Zerga, Korporazio zerga eta abar).
² Elkarteak eta udal erakundeak diruz laguntzeko eta musika eskola eta udal euskaltegiaren aurrekontuak ere finantzatzeko.

Zelan parte hartu?

aurrez aurrekoa

parte hartze saioak

1. saioa: **irailak 6, asteazkena** 19:00 - 21:00

Gandasegi ikastetxea
(areto nagusia),
Galdakao



webgunearen bitartez

parte hartu nahi duten guztientzako webforoa

2017ko irailaren 1etik 30era izango da.

www.galdakao-hobetuz.eus

